

## AKTA

### UDAL OSOKO EZ OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

**Eguna:** 2025/06/30

**Ordua:** 8:30-ak

**Tokia:** Udaletxeko Areto Nagusian

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Joana Mendiboure

**Zinegotziak:**

EHBildu

Olaia Lasa Olaziregi

Garazi Urdampilleta Astibia

Jexux Olaziregi Bagües

Oihana Irastorza Gonzalez

Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi

Jon Albisu Mendiburu

Ibintza Iragorri Iriarte

**Idazkaria:**

Xabier de la Mota Vazquez

**Ezin etorria adierazi dute:**

### AZTERGAIK:

1. Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta hiriko hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzu kontratuaren nahitaezko luzapena onartu zen.

-I-

OIARTZUNGO UDALERRIAN HIRI-GARBIKETAKO ETA HIRIKO HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOKO ZERBITZU KONTRATUAREN NAHITAEZKO LUZAPENA ONARTU ZEN.

Alkateak azaltzen du, 2025eko ekainaren 26an Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren komunikazioarekin batera, esleipenaren ebazpen horren aurka FCC MEDIO AMBIENTE S.A.U. enpresak jarritako kontratazioaren arloko errekurtsu berezia jaso da.

Errekurtsoan bertan aipatzen den moduan, esleipen ebazpenaren aurka jartzen denean, kontratazio espedientearen izapidetzea automatikoki bertan behera geratzen da.

Beraz, ezingo da prozedurarekin jarraitu errekurtsua ebatzi arte eta, beraz, ezingo da SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTOS S.L. enpresari esleitutako Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta udal-hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua emateko eta horretarako beharrezkoa den kamioia errentamendu erregimenean hornitzeko kontratua formalizatu.

Halere, Oiartzungo Udalak, 2025eko ekainaren 30etik aurrera, zerbitzu hori ematen jarraitzeko beharra dauka.

Horregatik guztiagatik, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak aurreikusten duen prozedura jarraiki eta honek kontratazio organoari esleitzen dizkion eskumenekin bat, Kontratazioko teknikariaren txostenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

### AKORDIOA

**Lehena.** Onartzea Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta hiriko hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzu kontratua, 2020ko maiatzaren 27an Udalaren Osoko Bilkurako Batzarrak FCC MEDIO AMBIENTE S.A. enpresari esleitutakoa, luzatzea kontratu berria gauzatzen hasi arte eta, nolanahi ere, gehienez bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe.

Lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 8:40ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



OIARTZUNGO  
UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



OIARTZUNGO  
UDALA

Sin.: Xabier de la Mota

